

burua 30 urterekin argitaratu zuen, *Obra guztiak eta beste ipuin batzuk*, eta Latinoamerikako narrazio laburren tradizioetik segitu arren, bestelako bide bat hartzera zihola erakutsi zuen: errealismo magikoaren adierazpideetatik urrunago, umore beltzaren, satiraren eta ironiaren formatatik hurbilago. Hamarkada batera argitaratu zuen *Ardi beltza eta bestelako fabulak*, eta jarraian helduko ziren *Betiereko mugimendua* (1972) testu bilduma, *Gainontzekoa isiltasuna da* (1978) eleberria, *Hitz magikoa* (1983), *E letra. Eguneroko baten pasarteak* (1987) eta elkarrizketetako puskekin osatutako *Fabularen muinerako bidaia* (1999), gehiagoren artean.

**Erbesteetan idatzitako obra guztiak; zioenez, idazleak erbesteetan zuten diktadore literaturaren alde egin duten onena**

**Aldarrikatu zuen narrazio batean esan gabe utzitakoa esandakoa bezain inportantea zela**

Gizakiaren gorabeherak, desirak, porrotak... gai ugari buruz, eta askotan animalien bitartez, ari da haren literatura. Lehen begi kolpean soilak iruditu arren haren idatziak, eremu sakonetara hurbiltzeko lekua uzten zuen beti. Nahi izatera. Narrazio laburren interpretazioak «infinituak» zirela defendatzen baitzuen, «unibertsoa bera den bezala».

«Haren fabulak, ipuinak, saia-kerak egonarriz landutako diamanteak dira, perfekzio diskretu bateko testu harrigarriak, zeintzuek ez duten moralizatze inongoasmorik», idatzi zuen Victor Manuel Ramos Hondurasko egileak, Monterrosok eremu zedarratuan kontzientzia handikolan bat egin zuela azpimarratuz, soilik behar-beharrezko hitzak baliatuz. Berretsi ohi zuen hori Monterrosok ere; narrazio batean esan gabekoa esandakoa bezain inportantea zela aldarrikatu zuen, ez bazen inportanteagoa: «Idazketa ere bada idatzitako galditzen dena».

Euskaraz haren lan gutxi daude irakurgai. Daudenak Gerardo Markuletak ekarri zituen 1995ean, *Istoria hiperlaburak* (Erein) liburuxkan; han daude haren *Dinosauruarena* eta beste bost kontakizun motz-motz, Mario Benedetti, Eduardo Galeano eta Julio Cortazarren testu motz-motzenetako batzuekin batera.

## Dena irabazteko

Irati Majuelo

**G**u gabe ere Itziar Ugartek argitaratu duen lehenabiziko poema-liburua da. Bere sinadura, hala ere, erraz aurki daiteke sariketa ugaritan edota *Lekore* aldizkarian, ez baita laburra literatur munduan egiten ari den ibilbidea. Lan heldua da lehen bilduma hau, zaratarik egin nahi gabe abiatua—izenburua bera ere letra xehez idatzita dakarrena, xume—, baina irakurtzeko eta berrirakurtzeko asko gordetzen duena.

Estilo narratiboari heltzen diote poema ugariak, anekdota edota oroitzapen hariei tiraka, inguruan jazotzen denaren deskribatzaile ernea agertzen da idazlearen lekuan. Kontakizun hutsetik harago, ordea, irudi indartsu batek, hausnarketa zoli batek, beste zera batek geruzat bat baino gehiago erantsi ohi dizkie istorioei. Badira, aldiz, liri-

koagoak diren poemak, zeinetan idazlearen «ni»-ak, metaforek eta sinboloek eremua hartzen dioten kontakizun tonuari. Bi estiloen arteko zubi lanean, ala-



**'Gu gabe ere'**

**Egilea:** Itziar Ugarte Irizar.  
**Argitaletxea:** Susa.

## Hibridoa

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

Imanol Mercero

**T**apa biguneko liburua da, tamaina estandarrekoa (21x15 cm) eta 132 orrialdekoa. Zaila da etiketa bakarrera makurtzen. Guztira 44 ipuin eta olerki laburretan egituratutako narrazio—edo eleberritxo— dela esango nuke.

Orrialdeetan aurrera eta atzera jauzi eginez, aise irakur daitezke testuak, proposamen literario beregainak balira bezala. Hainbat gai eta pertsonaia errepikatzen direla ohartuko gara, baina batasun hau obrari koherentzia ematearren dela pentsa genezake.

Une batean, ordea, konturatuko gara lehen ipuinetik irakurtzen hastea komeni zaigula, zerbait galtzearen ustea gero eta nabariagoa gertatuko baitzaigula: hari jarraitu behar da piezen esanahi osoan ulertzeko.

Errealismo magikoa bezalako

etiketa eroso ezartzen zaio aurkituko dugunari. Gaur eta hemen kokatutako kontakizuna da, COVID-19aren pandemiari erreferentzia egiten diona testu batean baina gehiagotan, eta, aldi berean, animalia humanizatuen bidez fabulak eta antzeko irakasbide—testuen baliabideak erakusten dituen, bi—biak fusionaturik. Esperientzia literario berritzaileetan gozatzen duten gazte zein helduentzat.



**'Zerak'**

**Idazlea:** Yolanda Arrieta Malaxetxeberria. **Ilustratzailea:** Haira Rivero. **Argitaletxea:** Denonartean.

baina, esan daiteke estetika konstante bat topatu duela idazleak, delikatu eta sendoa aldi berean, xaloa eta sakona, liburua hasieratik amaierara lotzen duena. Argitasuna dario idazketa, apenas baitago hitzik soberra, eta hori zail izaten da poesia ontzean.

Galera eta heriotza jo badituzte ere liburu honen gakoak, gaiei dagokienean, badira poemaz poema azaleratzen diren beste hainbeste ere: heldutzearen pozak eta heldurrak, belaualdi arteko arrakala ikusezinak, kezka politikoak, idazteko zilegitasunari buruzko gogoetak... Aro batetik besterako trantsizioa ikus daiteke poema bilduman, abiapuntu eta helmuga zehatzik ez duena, agian, baina mugimendua jartzen duena agerian. Bide horretan, etxe propio bat eraiki du Ugartek bere poesiaren baitan: badira familia—egongelak, aiton—amonon logelak, mai-taleentzako oheak, lagunentzako ardoak; badira gatazka baten trastelekua, memoriarako zein mundurako leihoak eta oraindik etorri ez diren horien ganbara, «—komeni da leku bat ametsen-

tzat—». Etxearen erdigunean, norberarentzako gela bat. Argazkiak eta koadernoak daude gela horretan, dena irabazteko abaguneak, dena galtzeko beldurrrak. Bizitzak nola, eraikitze—prozesuan jarraitzen duen etxearen korridoreetan zehar dabil idazlea, zenbaiten logeletan argia itzaltzen, besteei musika jartzen. Logela batetik besterako urratsetan zer galtzen den asmatu nahi luke, zer utzi dioten gainerakoek ohe ondoko mesanotxean.

Kanpora esandakoa eta —barrurantz gomutatutakoak—, ausartak dira Ugarteren poemak. Aurkitu dut haiengan belaualdi baten begirada, euskal literaturan loratzen doan belaualdi batena, herentzian jasotakoa zer zen eta horrekin zer egin nahi duen ulertu nahian dabilena, zer egon zen eta zer dakarren. Baina begiradaz harago hautematen dira bi begi. Belaualdi baten begiradari parez pare eusten dioten bi begi zabal, ikusmolde eta ikusmira propioa dutenak. Dena irabazteko dutenak, bidean galtzeko beldurrik gabe.

## Anfibioak

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

Imanol Mercero

**T**apa biguneko liburua da, tamaina estandarrekoa (21x14 cm) eta 48 orrialdekoa.

2020an emandako XXXIX. Lizardi sariaren irabazlea da.

Ipuina da, animalia humanizatuak eta pertsona errealak agertzen dituen, baso eta urmael inguruetan.

Kontakizunaren haria protagonista den Lur zapoaren ibiliekirin iruten da. Hasieran bere bizilekua eta errutina erakusten zaigu, bai eta sotilki aurkezten bidaia (iniziazioa) abiaraziko dion elementua ere, urmael baten irudia. Hain zuzen, irudi hartako paisaia aurrez aurre ezagutzeko grinak piztuta urrunduko da etxetik. Hortik aurrera, neurriko aventura eta ezusteko amaiera datoz.

Testuak darama kontakizunaren pisua, eta ilustrazioek infor-

mazio gehigarria erantzen dute, bereziki unean uneko tonua, baina baita pertsonaien karakterizazioa osatzeko ezinbesteko informazioa ere.

Esanguratsua da protagonistak bizkar-zorroan daraman hiztegiari eskaintzen zaion presentzia, beste testu mota batzuekin batera irakurketari halako dimentsio gehigarria eragiten diona, eta irakurketa—esperientziari mesedegarri gertatzen zaiona, nik uste.



**'Ureta Lur'**

**Idazlea:** Yolanda Larreategi. **Ilustratzailea:** Eider Eibar. **Argitaletxea:** Erein.